

IDEA:

Etorkinei laguntza eskaintzea izango da gure ideia nagusia. Honelako baliabideak edo laguntzak behar dituzten etorkinentzat dago egokitua: etxerik gabeko etorkinak, elikatzeko janaria behar duten etorkinak, arropa behar duten etorkinak eta papelik gabe kalean dauden etorkinei hain zuzen. Baita ere, lokal bat egongo da komunikabideak behar dituen etorkin ororentzat. Lehenik eta behin, Goierriko bailarako Beasaingo udalak pabiloi-lokal handi bat utziko digu; bertan gordeko ditugu hipermerkatuetan bildutako arropa eta janari produktuak. Hauek, hipermerkatuetan jasoko dira eta borondate guztiarekin emandakoak izango dira. Ondoren nahikoa bildu ondoren, garraio enpresa baten laguntzaz frontierako mugara eramango ditugu, hau da, Irun eta Frantzia zatitzen duen muga ingurura eta bertan Irungo Udalak laguntza emateko utziko digun lokal handiko sukaldean janaria prestatuko diegu etorkinei. Behin prestatu direla, frontierako mugara hurbilduko gara guk dugun furgonetarekin eta bertan itxaroten ari diren etorkinei jateko janaria eta arropa banatuko dizkiegu. Etxerik gabeko etorkinei lo lekua bilatzen saiatuko gara eta atzerritik ihes eginda dauden horiei asesoria baten laguntzaz, laguntza legeak emango dizkiegu guk eta guregana hurbildutako hainbat boluntarioek. Horrela papelik gabe dauden horiei, ahalik eta azkarren papelak lortzen saiatuko gara.

Hau guztia aurrera eramateko hainbat laguntza jasoko ditugu.

Horrela izanez gero, gure helburuetako bat beteko dugu eta gure enpresa berriaren proiektua hobetzen eta sakontzen saiatuko gara.

Ondorioztatu dezakegu, etorkinen bizimodua kalitate handiagokoa izatea eta laguntza ematen oinarrituko garela, baita ere, helburuetako bat da inguruko jendeak kontuan hartzea munduaren beste aldeko jendearen egoera eta horren urruti ez daude etorkinek pairatzen dutenaz jabetzea, hau da, bertako jendearentzat oinarrizko eta beharrezko produktuak, jende askok ez dituela konturatzea.